eginaren eginez

Zurekin Zuzenean

Zk. 22

ASOCIACIÓN DE PERSONAS CON DISCAPACIDAD FÍSICA DE ÁLAVA - ARABAKO GUTXITASUN FISIKOA DUTEN PERTSONEN ELKARTEA

PUBLIPOSTA
PUBLICORREO

# Manifiesto, 3 de Diciembre

Con motivo del **DÍA EUROPEO E INTERNACIONAL DE LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD**, *eginaren eginez* ha consensuado junto con las entidades con las que está confederada en la coordinadora ELKARTEAN, un **manifiesto reivindicando el ejercicio de nuestro derecho a DECIDIR DÓNDE, CÓMO Y CON QUIÉN VIVIMOS, en igualdad de condiciones que las demás personas, sin vernos obligadas a vivir con arreglo a un sistema de vida específico,** de acuerdo con lo que dispone el Art. 19 de la Convención de las Naciones Unidas sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad (Derecho a vivir de forma independiente y a ser incluidas en la comunidad).

La actual crisis sanitaria, social y económica derivada del Covid-19 ha mostrado como nunca el carácter segregador de las políticas basadas en la institucionalización, habiéndo-

# Manifestua, Abenduak 3

**DESGAITASUNA DUTEN PERTSONEN EUROPAKO ETA NAZIOARTEKO EGUNAREN** harira, *eginaren eginez* elkarteak manifestu bat adostu du ELKARTEAN koordinakundean konfederatuta dagoen erakundeekin batera, **NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI erabakitzeko dugun eskubidea aldarrikatzeko, gainerako pertsonen baldintza berberetan, bizi-sistema espezifiko baten arabera bizitzera behartuta egon gabe,** desgaitasuna duten pertsonei buruzko Nazio Batuen Hitzarmenaren 19. artikuluak xedatutakoarekin bat (modu independentean bizitzeko eta komunitatearen parte izateko eskubidea).

COVID-19tik eratorritako osasun-, gizarte- eta ekonomia-krisiak inoiz baino gehiago jarri ditu agerian erakundetzean oinarritutako politiken izaera

se vulnerado derechos fundamentales de las personas usuarias de centros residenciales para personas con discapacidad, las cuales han sido privadas del derecho a decidir sobre los aspectos más básicos de su propia vida.

Habiendo transcurrido 14 años desde la aprobación de la Convención sobre los Derechos de las Personas con Discapacidad, exigimos que las instituciones de Euskadi apuesten decididamente por el modelo de Vida Independiente en las políticas en materia de discapacidad, superando definitivamente enfoques todavía basados en el asistencialismo y la institucionalización. Reivindicamos su compromiso decidido, basado en los principios de inclusión social, participación activa, normalización, igualdad de oportunidades y no discriminación establecidos en el marco jurídico.

Para ello resulta necesario **GARANTIZAR LAS SIGUIENTES CONDICIONES:**

- **ASISTENCIA PERSONAL GARANTIZADA con una prestación económica suficiente** para desarrollar una vida independiente y participar en la comunidad.

- **VIVIENDA DIGNA, ADECUADA Y ACCESIBLE,** impulsando medidas que superen los obstáculos para acceder a un alojamiento con las necesarias condiciones de accesibilidad.

baztertzailea, eta desgaitasuna duten pertsonentzako egoitza-zentroetako erabiltzaileen funtsezko eskubideak urratu dira; izan ere, euren bizitzetako oinarrizko alderdien inguruan erabakitzeko eskubidea galdu dute.

Desgaitasuna duten pertsonen eskubideei buruzko Hitzarmena onetsi zenetik 14 urte igaro ondoren, eskatzen dugu Euskadiko erakundeek bizi-eredu independente baten alde egin dezatela desgaitasunaren arloko politiketan, behin betiko atzean uzteko laguntzan eta erakundetzean oinarritutako ikuspuntuak. Haien konpromisoa aldarrikatzen dugu, testuinguru juridikoan ezarritako gizarteratzearen, parte-hartze aktiboaren, normalizazioaren, aukera-berdintasunaren eta bazterkeria ezaren printzipioetan oinarrituta.

Horretarako, beharrezkoa da **BALDINTZA HAUEK BERMATZEA:**

- **LAGUNTZA PERTSONAL BERMATUA beharrezko prestazio ekonomikoarekin,** bizitza independentea izateko eta komunitatean parte hartzeko.

- **ETXEBIZITZA DUIN, EGOKI ETA IRISGARRIA,** eta, horretarako, beharrezko irisgarritasun-baldintzak izango dituen etxebizitza bat eskuratzeko oztopoak gaindituko dituzten neurriak sustatuz.

**GARANTÍA DE INGRESOS SUFICIENTES** que permitan desarrollar una vida digna haciendo frente a los gastos necesarios para la supervivencia y los que se requieren para participar en la vida política, económica, cultural y social en condiciones de igualdad, considerando el **sobrecoste de la discapacidad.**

**SERVICIOS SOCIALES** con una oferta amplia y diversa, **orientados a apoyar el desarrollo de una vida independiente y desinstitucionalización**, y que ponga en valor el apoyo desde los recursos comunitarios.

**PRODUCTOS DE APOYO** necesarios para la **autonomía personal** en el domicilio y para participar en la comunidad.

**ATENCIÓN SANITARIA sin discriminaciones por motivos de discapacidad**, mediante la garantía de nuestro acceso a una atención sanitaria adecuada en espacios y con dispositivos accesibles, sin exclusiones o diferencias con respecto al resto de la población.

**SOLO CONTANDO CON ESTAS CONDICIONES LAS PERSONAS CON DISCAPACIDAD PODREMOS EJERCER NUESTRO DERECHO A DECIDIR DÓNDE, CÓMO Y CON QUIÉN VIVIMOS, COMO CUALQUIER OTRA PERSONA.**

**DIRU-SARRERA NAHIKOEN BERMEA,** aukera emango dutenak bizitza duina izateko eta bizirauteko gastuei eta bizitza politikoan, ekonomikoan, kulturalean eta sozialean parte hartzeko gastuei aurre egin ahal izateko, berdintasun-baldintzetan, **desgaitasunaren gainkostua** kontuan hartuta.

**GIZARTE-ZERBITZUAK,** eskaintza zabal eta anitzarekin, **bizitza independentearen eta deserakundetzeareren garapenaren alde egitera orientatuak** eta komunitateko baliabideen laguntzaren balioa azpimarratuko dutenak.

**Autonomia pertsonalerako** beharrezko **LAGUNTZA-PRODUKTUAK,** bai etxebizitzarako bai komunitatean parte hartzeko.

**OSASUN-ARRETA, desgaitasunarekin lotutako bazterketarik gabe,** osasun-arreta egokirako sarbidearen bermearekin eta gailu irisgarriekin, bazterketarik gabe gainerako herritarrekin alderatuta.

**BALDINTZA HORIEKIN DESGAITASUNA DUGUN PERTSONOK NON, NOLA ETA NOREKIN BIZI ERABAKITZEKO ESKUBIDEA ERABILI AHAL IZANGO DUGU, BESTE EDOZEIN PERTSONAK BEZALA.**

# Accesibilidad

*eginaren eginez* se ha dirigido a la Seguridad Social de Álava reclamando que los dispensadores de gel hidroalcohólico instalados en sus sedes sean accesibles y respondan a criterios de diseño universal. Los que han colocado tienen que ser accionados mediante un pedal, con lo que no pueden ser utilizados por el colectivo de personas de movilidad reducida.

También en relación con las medidas antiCOVID adoptadas por distintos estamentos, la Asociación se ha dirigido a la librería-papelería ELKAR, de la calle San Prudencio, en Vitoria-Gasteiz, que cuenta con dos accesos: uno con rampa y otro con escalón. La empresa ha habilitado un flujo en el interior del establecimiento, accediéndose a la tienda por la puerta con escalón y saliendo de la misma por la puerta con rampa, con lo cual las personas de movilidad reducida no pueden entrar. Dicho comercio ha dado respuesta a la Asociación informando de las dificultades que han encontrado para gestionar el referido flujo de personas e invitando al colectivo a entrar y salir del establecimiento por la puerta que nos resulte más conveniente. Asimismo, informan que van a poner una señalización adecuada en la puerta accesible, para evitar malentendidos, garantizando el acceso de las personas con discapacidad física por la puerta con rampa.






# Irisgarritasuna

*eginaren eginez* elkartea harremanetan jarri da Arabako Gizarte Segurantzarekin, eta eskatu dio haren egoitzetan ipinitako gel hidroalkoholikoaren banagailuak irisgarriak izateko eta diseinu unibertsalaren irizpideei erantzuteko. Ipini dituztenak pedal batekin aktibatu behar dira; beraz, ezin dituzte erabili mugikortasun urriko pertsonek.

Hainbat erakundek COVID-19aren aurka hartutako neurriei dagokienez, elkartea harremanetan jarri da Gasteizko San Prudentzio kaleko ELKAR liburu- eta paper-dendarekin, zeinak bi sarrera baititu: bat arrapalarekin eta bestea mailarekin. Dendara maila duen atetik sartzen da, eta arrapala duen atetik irteten da; beraz, mugikortasun urriko pertsonak ezin dira sartu. Dendak erantzun egin dio elkarteari, eta mugimendu hori kudeatzeko topatu dituzten zailtasunen berri eman dio; halaber, kolektiboari komenigarriena den tokitik sartu eta ateratzeko gonbidapena egin dio. Horrez gain, adierazi dute seinale egokiak ipiniko dituztela ate irisgarrian, gaizkiulertuak ekiditeko eta desgaitasun fisikoa duten pertsonek arrapala duen atetik sartu ahal izatea bermatzeko.



# Bono Taxi

En el Boletín Oficial del Territorio Histórico de Álava N° 132, del viernes 20 de noviembre de 2020, se ha publicado la convocatoria de ayudas para la **utilización del servicio de taxi para 2021.** El Instituto Foral de Bienestar Social, IFBS, ha habilitado un calendario de citas para la tramitación de estas solicitudes. Hay que solicitar cita previa.

Este es el enlace para la solicitud de cita previa.

**https://web.araba.eus/es/-/tr-servicio-de-transporte-adaptado-ayudas-dirigidas-a-personas-con-problemas-de-movilidad-para-la-utilizacion-del-servicio-de-taxi-como-medio-alternativo-de-transporte**

No obstante en la web del IFBS también puede accederse a través de cita previa.

# Taxi Bonua

Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari Ofizialaren 2020ko azaroaren 20ko (ostirala) 132. zenbakian argitaratu zen **2021erako taxi-zerbitzua erabiltzeko laguntzen deialdia.** Gizarte Ongizaterako Foru Erakundeak (GOFE) hitzorduen egutegi bat prestatu du eskaera horiek izapidetzeko. Aurretiazko hitzordua eskatu behar da.

Hau da hitzordua eskatzeko esteka.

**https://web.araba.eus/eu/-/tr-servicio-de-transporte-adaptado-ayudas-dirigidas-a-personas-con-problemas-de-movilidad-para-la-utilizacion-del-servicio-de-taxi-como-medio-alternativo-de-transporte**

Dena dela, GOFEren webgunean ere egin daiteke, aurretiazko hitzorduaren bidez.

eginaren eginez


Plaza Simón Bolívar plaza, 9 bajo/behea
01003 VITORIA-GASTEIZ
Tfno./Fax: 945 225516
info@eginez.org
www.eginez.org • www.ponteenmilugar.eu



Ayuntamiento de Vitoria-Gasteiz
Vitoria-Gasteizko Udala

Arabako Foru Aldundia
Diputación Foral de Álava